UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA ESPEZIFIKOA
2017ko PROBA

BIOLOGIA

PROBA

ERANTZUNAK

Azalpenak

Azterketak bi atal ditu:

- Lehen atalean, bi gaietako bat azaldu behar da: A edo B.
- Bigarren atalean, hiru galderei erantzun behar zaie.

Aintzat hartuko dira:

- Hizkuntza zientifikoaren erabilera.
- Ideiak adierazteko ordena eta heldutasuna.
- Azterketaren aurkezpen egokia.

Aukeratu gai bat: A edo B (4 puntu)

A) Proteinak: Konposizioa. Lotura motak. Egitura-mailak. Funtzio biologikoak. (Aintzat hartuko da azalpenak marrazkiekin laguntzea)

B) Mitosia: Zer da? Zer funtzio du giza gorputzean? Zer fase ditu, eta zer gertatzen da haietako bakoitzean? (Aintzat hartuko da azalpenak marrazkiekin laguntzea)

Erantzun galdera hauei: (6 puntu)

1.- Definitu laburki (30 hitz baino gutxiago) kontzeptu hauek (2 puntu):
a) Genea
b) Fotosintesia
c) Nerbio-bulkada
d) Txertoa

2.- Azaldu giza arnasketa: arnasbideak, gasak finkatzea, garraiatzea eta kanporatzea. (2 puntu)

3.- Zer da hiesa? Zer mikroorganismok eragiten du? Nola transmititzen da? Nola ekidin daiteke? (2 puntu)

EBAZPENA BIOLOGIA
(2017ko maiatza)

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

GAIAK	Puntuak	ERANTZUNAK
A) Proteinak: Konposizioa. Lotura motak. Egitura-mailak. Funtzio biologikoak.	4	- Aminoazidoen egitura (0,5 puntu) - Lotura peptidikoa (0,5 puntu) - Maila primarioa (0,5 puntu)) - Maila sekundarioa (0,5 puntu) - Maila tertziarioa (0,5 puntu) - Maila kuaternarioa (0,5 puntu) - Funtzio biologikoak (0,5 puntu) - Marrazki lagungarriak (0,5 puntu)
B.- Mitosia: Zer da? Zer funtzio du giza gorputzean? Zer fase ditu eta zer gertatzen da bakoitzean?	4	- Definizioa (0,5 puntu) - Funtzioak (0,5 puntu) - Faseak azaltzea (2 puntu) - Marrazki lagungarriak (1 puntu)
GALDERAK	**Puntuak**	**ERANTZUNAK**
Definitu laburki (30 hitz baino gutxiago) kontzeptu hauek (2 puntu): a) Genea b) Fotosintesia c) Nerbio-bulkada d) Txertoa	2	Aintzat hartuko da kontzeptua zehazteko 30 hitz baino gutxiago erabiltzea: a) Genea (0,5 puntu) b) Fotosintesia (0,5 puntu) c) Nerbio-bulkada (0,5 puntu) d) Txertoa (0,5 puntu)
2.- Azaldu giza arnasketa: arnasbideak, gasak finkatzea, garraiatzea eta kanporatzea.	2	- Arnasbideak (0,5 puntu) - Oxigenoa finkatzea (0,5 puntu) - Oxigenoa garraiatzea (0,5 puntu) - CO_2-a kanporatzea (0,5 puntu)
3.- Zer da hiesa? Zer mikroorganismok eragiten du? Nola transmititzen da? Nola ekidin daiteke?	2	- Definizioa (0,5 puntu) - GIB/VIH birusa (0,5 puntu) - Transmisioa (0,5 puntu) - Prebentzioa (0,5 puntu)

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO ERLAZIOA

Galdera	Ezagutza-adierazlea
A	*1.1. Materia biziaren konposizioa azaltzea, bioelementuak eta biomolekulak identifikatuz.* *1.2. Biomolekulen egitura kimikoa eta izaki bizidunetan betetzen duten funtzioa erlazionatzea.*
B	*2.7. Mitosiaren eta meiosiaren arteko desberdintasunak aztertzea eta haren esanahi biologikoa adieraztea.*
1	*4.1. Gene kontzeptua azaltzea.* *2.3. Katabolismo eta anabolismo zelularraren egitekoa laburki azaltzea.* *3.3 Nerbio-bulkadak nola higitzen diren deskribatzea.* *6.5 Txertoen ekintza-mekanismoa azaltzea.*
2	*3.2. Biriketako gas-trukea azaltzea*
3	*6.4 Sistema immunologikoaren eskasiek berekin dakartzaten arazoak deskribatzea.*